

Julene Azpeitia lehiaketa



2022. urtea

Argitaratzailea: _____

Laguntzailea: _____



DURANGO
Udala • Ayuntamiento





JULENE AZPEITIA (1888-1980) Zumaian jaio eta Bilbon zendu zen 92 urte zituela. Maistra titulua lortu ondoren, Aizarnazabalen hasi zen eskolak ematen eta, hemendik, Bizkaiko ikastoletara pasatu zen. Irakaskuntza izan zuen lanbiderik gogokoena, “milla bider jaioko banintzake ere, maistra izango nintzake” aipatu zuen behin baino gehiagotan, izan ere, beren bizitzako ardatz nagusiak *umeak* eta *euskara* izan ziren. 1916. urtean Enrike Eskauriatzarekin ezkondu zen. Senarrarekin batera Mexikora joan zen eta, han, 1918. urtean, euskaraz idazteari ekin zion.

Itsasoz haraindi lau urte eman ondoren, Euskal Herrira itzuli zen bertako ikastoletan lanean jarduteko. Abadiñoako Traña eta Mendiolako auzo eskoletan jardun zuen 1922tik 1936a arte. Gerra ostean hainbat zigor jasan behar izan zituen: “amaika urte ikastola gabe, sei urte Burgosko herri txiki batean...Orain Durangon bizi naiz nire senarrarekin”. Hau 1961. urtean idatzi zuen Julenek. Sasoi hartan Durangoko Juan de Itziarren bizi zen, irakaskuntza utzirik eta idazteari lotuta.

Esanguratsua da 1962an Euskaltzaindiko Sariketara aurkeztu zuen ipuinaren izenburua: *Euzkera jasotzea erabaki dogu*. Izan ere, Julenek, ipuin, eskola eta irratsaioen bidez euskara hedatzea zuen helburu. Arrate Irratiak emititzen zuen *Oiztik Anbotora* irratsaioan hartu zuen parte, besteak beste, Juan Gallastegi apaizarekin eta Eskarne Aromarekin. Irratian, maistra-lanetan edota idazterako orduan, beti, kezka nagusi bat zebilkion buruan: “nola jardun euskara iraunarazteko eta berau umeengan biziberritzeko?”

1975. urtean, Gabriel Arestik proposatuta, Euskaltzaindiak euskaltzain ohorezko izendatu zuen Julene Azpeitia. Bera izan zen lehen emakume euskaltzain ohorezkoa, eta gero, Tene Mujika debarra eta Madeleine Jauregiberri zuberotarra gehitu zitzaizkion.

Julene Azpeitiak argitaratu zituen liburuak: *Osasuna, Merketza ta Yanaritzaz* (1920); *Irakurri, Matte* (1932); *Amandriaren Altzoan* (1961) eta *Zuentzat* (1974).

Izenburua: Julene Azpeitia Lehiaketa. 2022. urtea
Azala eta barruko marrazkiak: Imanol Larrinaga
Argazkiak: Zalao Fuertes
Argitaratzailea: Durangoko Udala
Maketazio eta fotomekanika: Gertu. Oñati
Inprimategia: Gertu. Oñati
Lege Gordailua: SS-1424-2014
2022ko azaroa

Aurkibidea

HITZAURREA X

Juan Julian Rios Santiago
Herrigintza Batzordeko Presidentea

IPUINAK

AMETSA, ERREALA OTE ZEN?..... X

Joane Asategui Alvarez

LAGUNEN INDARRA..... X

Garazi Axkoeta Beitia

AITONA-AMONEN ETXEKO SUTONDOA..... X

Intza Notario Huerta

MAIATZEAN KUKU X

June Sarrionandia Linaza

FELISAREN SAMINA..... X

Jone Berrizbeitia Munitxa

ATE BAT, AMETS BAT X

Lucía López García

BERRIRO IKUSIKO ZAITUT X

Asher Cerezal Gutierrez

33..... X

Unai Martin Mendiguren

OLERKIAK

MUNDUKO ALT XOR ONENA X

Oihane Cabezas Guenaga

ZULOAN X

Lore Sanchez Onaindia

BAGOAZ..... X

Danel Barrutia Narbaiza

HITZ HUTS X

Garazi Otaduy Garitaonandia

AURPEGIAK..... X

Ainhoa Urien Telletxe

BERTSO PAPERAK

IRABAZI ARTE X

Gorka Foncea Barbarias

ZAZPI ANTXUMEAK X

Unax Areitio Cearreta

GAZTE MOZKOR BATEN KOMERIAK X

Idoia Palacios Izurieta, Ixone Asategi Narbaiza, Alba Gomez Arce

AZALEKO ELKARRIZKETAK X

Iruri Altzerreka Martinez

Hitzaurrea

Esku artean duzue Julene Azpeitia literatura lehiaketaren beste harribitxi bat. Lehiaketa Durangoko Udalak antolatzen du “umeak, gazteak eta euskara uztartzeko asmoz”.

Urteen poderioz, Julene Azpeitia lehiaketa indartu egin da literatura erreferente gisa. Datorren urtean, 2023an, 40 edizioa beteko du. Saritutako lanak euskarri idatzian zein digitalean argitaratu dira, liburuan zein webean alegia. Azken berrogei urteotan 10.000 lan inguru aurkeztu dira lehiaketara, eta, hauetatik, 300dik gora dira sarituak izan direnak.

Julene Azpeitia lehiaketa haur eta gazte askoren abiapuntua izan da literaturaren alorrean. Sarituetako askok jarraitu egin dute idazten eta liburuak argitaratu dituzte narraziogintzan zein poesiagintzan. Eta halatsu egin dute bertsoen alorrean saridun atera diren askok; gaur egun herrialde mailako zein Euskal Herriko mailako bertsolari txapelketetan hartzen baitute parte.

Lau hamarkada igaro dira irudimena, artea eta, azken baten, euskarazko kultura hauspotzen hasi ginenetik. Horrexegatik, lerro hauek baliatu nahi ditut nire esker ona adierazteko partehartzaileei eta hezkuntza komunitate osoari, euskarazko literatura sustatzen erreferente bilakatu direlako eta, aldi berean, zintzotasun osoz dihardutelako euskararekiko pasioa gizarte osora hedatzen.

Azken esker-hitzak irakurlearentzat: goza itzazu esku artean dituzun idazlan liluragarri hauek.

Eskerrik asko eta besarkada bat.

Juan Julian Rios

Durangoko Alkateordea eta Herrigintza Batzordeko Presidentea

Julene Azpeitia
l e h i a k e t a
2 0 2 2

Ipuinak



Joane Asategui Alvarez

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean
- Jesuitak Ikastetxea -



Ametza, erreala ote zen?

Eguna beste edozein egun bezalako zen. Esnatu eta nire leihotik eguzkiak nola distira egiten zuen ikusi nuenean, eguzkiak besarkatzen ninduela eta bere berotasuna nirekin partekatzen zuela sentitu nuen. Primeran sentitu nintzen. Sentsazio eder horretaz gozatzen nengoen bitartean ama sartu zen nire logelan eta ohetik altxatu behar nuela esan zidan, bart, eguna hondartzan pasatzea adostu genuelako.

Gosaltzeko, laranja zuku bat, bi tostada eta baso bat esne hartu nituen. Ondoren, jantzi eta dena prestatu ondoren, etxetik atera ginen. Inoiz ahaztuko ez nuen abentura nuen zain.

Bidaia ez zitzaidan oso luzea iruditu *pop it* izeneko jostailu batekin jolasean aritu nintzelako. Nahiko entretenigarria zen eta izugarritzko lasaitasuna ematen zidan pop soinudun zirkulu txikiak lehertzeak.

Hondartzara iritsi ginenean jende askorik ez zegoen leku bat aukeratu genuen eguzkia lasai hartzeko asmoarekin. Hondartza oso polita zen, nahiko lasaia eta gainera olatuak entzuten nituen. Eguzkia hartzeaz aspertu nintzenean, olatuekin jolasteko uretara sartu nintzen, izugarritzko beroa egiten zuelako. Bat-batean, olatu erraldoi batek, hondoratu ninduen.

Handik ateratzen saiatu nintzen, baina ez nuen lortu. Oxigenorik gabe geratu nintzen. Konortea galdu, eta pixkanaka-pixkanaka, hondoratzan hasi nintzen. Itsas ondoko hondarra ukitzean, esnatu egin nintzen. Aho bete hortz geratu nintzen: ur azpian arnastu egiten nuen! Egin ahal nituen gauza harrigarri guztietan pentsatzen hasi nintzen. Itsas hondotik zehar igerian ibili nintzen denbora luzez, eta ikusi nuen guztiak liluratuta utzi ninduen. Dena zen ederra! Ez nuen inoiz halakorik ikusi, nire alboan, kolore desberdinetako milaka arrain txiki ezin ederragoak zebiltzan poz-
pozik igerian. Eta paisaia are harrigarriagoa zen kolore desberdinetako landare desberdinekin nahastuta. Inoiz ikusi dudan paisaia ederrena zen. Une zehatz horretan sentsazio esplikaezin bat sentitu nuen. Izugarria izan zen.

Bat-batean, nire poza zapuztu zuen zerbait ikusi nuen: dortoka bat hiltzeko zorian ikusi nuen. Auto baten pneumatiko bat zeukan hankaren gainean eta ezin zen ur-azaletik irten. Dortokak oso gustuko ditudanez, banekien ezin direla bi ordu baino gehiago arnastu barik egon, beraz ahalik eta arinen zerbait egin behar nuen.

Berarengana hurbildu nintzen eta pneumatikoa kentzen saiatu nintzen. Ahalegin handia egin arren, pisu handia zuenez, ez nuen lortzen. Inguruan zeuden koloretako arrainak, egoeraren larritasuna ikusirik, nigana hurbildu eta batera tiraka hasi ginen. Denon indarrak elkartzuz, pneumatikoa kentzea lortu genuen eta dortoka gorantz joan zen. Ikaragarri sentitu nintzen, gertatutakoaren erantzule sentitu nintzelako. Zer gertatuko zatekeen bertan egongo ez banintz? Ziurrenik dortoka hil eging zen. Itsasotik ahal nuen zabor guztia biltzea erabaki nuen. Zabor asko aurkitu nuen eta bertan aurkitutako poltsetan sartu nuen. Itsasoa garbitu ondoren, askoz hobeto sentitzen nintzela ohartu nintzen.

Nire gurasoak oso kezkatuta egongo zirela konturatu nintzen, denbora asko igaro zelako uretara sartu nintzenetik. Pentsatzen nengoen bitartean, oskol eder bat ikusi nuen, kolore desberdinetakoa. Gorde egin nuen. Ilusio handia egiten zidan abentura hartako oroitzapen bat izateak. Uretatik atera eta zaborra botatzeko edukiontzi baten bila hasi nintzen. Egun horretan




konturatu nintzen zein garrantzitsua den zaborra lurrera edo itsasora ez botatzea eta hori oso kaltegarria dela guztiontzat. Zabor guztia ontzira botatzen amaitu nuenean, toalla neukan tokira itzuli nintzen, eskola ondoan jarri eta atsedean hartzeko etzan egin nintzen. Begiak itxi eta esnatu egin nintzen. Momentu horretan ez nuen egoera ulertzen: gertatutako guztia ametsa izan ote zen? Dena oso erreal iruditu zitzaidan. Alde batera eta bestera begiratu eta gero, harrituta utzi ninduen gauza bat ikusi nuen. Ezin nuen sinetsi, ezinezkoa zen. Baina bai, han zegoen, nire ondoan, nik aurkitutako eskola, beti bezain distiratsu.

Ipuinak



Garazi Arkotza Beitia

Akzesita 11-12 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



DM

Lagunen indarra

Bazen behin, Nikole izeneko neska bat. Baxua eta argala zen, haizeak eramateko modukoa. Baratxuria baino finagoa eta edonoren aurrean aurkezteko modukoa, baina oso lotsatia zen. Afrikakoa zen, baina, bere bizi-baldintzak hobetzeko asmoarekin, Durangora etorri berria zen. Kirola egiteko arroparekin janzten zen. Bere herrian lagunekin egotea gustatzen zitzaion, eta kirola egitea ere bai. Durangon pisu txiki batean bizi zen bere familiarekin.

Ikastolako lehen egunetan, Nikole bakarrik egoten zen jolas-orduan. Bere gelako lagunekin egon nahi zuen, baina hurbiltzeak lotsa ematen zion. Horregatik, egunero bakarrik igarotzen zuen jolas-ordu osoa. Behin, bere andereñoa bakarrik zegoela konturatu zen eta berarengana hurbildu zen. Besteengana hurbiltzera animatu zion, baina berak ez zuen nahi. Berarekin jolas-ordu osoa egon zen, eta oso triste ikusi zuen. Geroago, andereñoak Nikoleren amari deitzea pentsatu zuen:

—Gaur Nikolerekin jolas-orduan egon naiz eta oso goibel eta bakarrik ikusi dut. Holakoa da edo azkenaldian arazoren bat dauka? —galdetu zion andereñoak.


—Ez, Nikole oso neska alaia da, baina Durangora etorri garenetik faltan botatzen ditu bere lagunak eta bere herria. Egunak pasatu ahala hobeto sentitzea espero dut eta Durangon lagun berriak egitea —erantzun zion Nikoleren amak.

—Ondo dago, gu ere Ikastolan berari laguntzen saiatuko gara —esan zuen andereñoak.

Andereñoa Nikoleri laguntzeko pertsona egokian pentsatzen aritu zen eta bat etorri zitzaion burura: Julia. Julia ere oso kirolaria eta alaia zen eta beti besteei laguntzeko prest zegoen; seguru Nikolerekin ondo moldatuko zela. Egun batean, andereñoa Juliarengana joan zen eta Nikolerengana hurbiltzera animatu zuen, zeozertan jolastu nahi zuen galdetzeko, bere lagunekin egotera animatzeko... Eta Juliak horixe egin zuen, Nikolerengana joan zen eta zeozertan jolastu nahi zuen galdetu zion. Baina Nikolek ezetz esan zion, eta bakarrik uzteko. Hala ere, Julia jolas-ordu guztietan berarengana hurbiltzen zen, baina ez zuen ezer lortzen.

Jolas-ordu batean, Julia bere lagunekin saskibaloian jolasten zegoela, saskibaloiko baloiak aldegin zien, eta Nikoleren ondoan geratu zen. Nikolek baloia hartu zuen eta zelaian boteka sartu zen. Saskira hurbildu eta hiruko marratik bota zuen. Saskiratze ederra egin zuen! Denak harrিতa geratu ziren eta Julia berarengana joan eta saskibaloiko taldean apuntatu behar zela esan zion. Nikolek ez zuen ezer esan, eta berriro harmailetan jesarri zen. Hurrengo egunetan, jolas-orduetan, Nikole beti haiei begira egoten zen eta Julia eta bere lagunek tartean baloia nahita botatzen zioten. Eta guztietan berak baloia hartu eta saskiratzea lortzen zuen. Azkenean egun batean Nikole haiekin saskibaloian jolasten hasi zen! Oso ona zen eta berarekin jolasteak gustua ematen zuen. Juliak saskibaloia taldean apuntatzeko animatzen jarraitzen zuen, baina Nikolek ez zion ezer erantzuten.

Halako batean, Nikole entrenamenduan agertu zen eta taldearekin entrenatzeko baimena eskatu zuen. Entrenatzaileek baiezkoa esan zioten eta behin saioa hasita, harritu egin ziren oso ona zelako. Horregatik, hasieratik partidak jolastea proposatu zioten. Taldea emaitza txarrak pilatzen ari zen, eta, beharbada, Nikoleren laguntzarekin, egoerari buelta eman ahalko zioten. Larunbatean bertan zeukaten partida, eta gonbidatu egin zuten.



IL
-22

Nikolek baietz esan zien eta zer ordutan, zein kamiseta eta noren kontra jokatu behar zuten galdetu zien entrenatzaileei.

Larunbatean, partida bukatu zenean, Nikole umore txarrez joan zen etxera, falta asko egin zituelako, bere ustez txarto jokatu zuelako eta partida galdu egin zutelako. Baina entrenatzaileak oso pozik zeuden berarekin, eta ziur zeuden entrenamenduekin asko hobetuko zuela. Eta horrela izan zen: astero hobetzen joan zen eta poliki-poliki taldearen emaitzak ere hobetzen joan ziren. Liga bukatzen ari zen eta azken partida falta zitzaien. Maila berean mantentzeko irabazi beharra zuten. Nikolek taldearen gidaritza hartu eta garaipen-bidean jarri zuen. Azken segundoetan hiruko saskiratze ederra ere sartu zuen! Besarkatu egin ziren guztiak. Pozaren pozez zeuden!

Saskibaloia denboraldia amaitu zen eta guztiak hurrengo noiz hasiko irrikitan zeuden. Nikole oso gustura zegoen taldean; bertan lagun berri pilo bat zeuzkan. Julia bere lagun mina zen eta beste batzuekin batera kuadrillatxo bat ere egin zuten eta arratsaldeetan txurrerian geratzen ziren Durangotik irtetzeko. Afrikako bere herriko lagunak ez zituen ahazten, baina jadanik, Durangon ere lagunak zeuzkan, eta ez zen bakarrik sentitzen.

Ipuinak



Intza Notario Huerta

Irabazlea 13 -14 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



II
20

Aitona-amonen etxeko sutondoa

Ai nire aitona-amonen etxeko sutondoa! Zenbat oroitzapen ekartzen dizkidan etxeko txoko atsegin horrek! Txikia nintzenean bertan pasatzen nuen gau eta egun, epel eta goxo neguko gau ilunetan...

Barkatu! Ez naiz aurkeztu ere egin! Haizea naiz eta hemen nire aitona-amonen etxeko sutondoan pasatzen nituen abentura guztiak kontatuko dizkizuet. Abentura asko izan ziren, horietan denetarik ikusi eta entzun nuen: dragoiak, maitagarriak, Fenix-ak, adarbakarrak... Animalia miragarri eta eder asko, baina baita desatseginak ziren gauzekin ere aurkitu nintzen: erraldoiak, saguzar erraldoiak, armiarmak... Leku harrigarriekin ere aurkitu nintzen, adibidez; txokolatzeko gazteluetan, freskagarritzko ibaietan, oihan eta baso miragarrietan... Lagun asko ere egin nituen, Perusian erreinuko printzesa ausarta eta ederra, esaterako. Ez zuen onartzen bere ingurukoei minik egitea, eta horrela bazen hil arte borrokatuko zen. Behin, loro koloretsu eta alai bat ere ezagutu nuen, ez zen isildu ere egiten, baina lagun ona zen eta jatorra. Eta hori dena nire etxeko sutondo ahaztezinetik mugitu gabe.

Nire aitona-amonen etxera lo egitera joaten nintzenean, beti afaldu

ondoren, aitonak bere txokolate beroetako bat prestatzen zidan. Asko gustatzen zitzaidan txokolate hura, bero eta goxoa. Horrek nire ametsetan galtzera laguntzen ninduen eta gauero bertan esertzen nintzen manta goxo batean bilduta. Amona nire ondoan esertzen zen eta bere liburutegitik liburu bat hartzen zuen niri bertako istorioren bat irakurtzeko. Gogoz eta interesatuta begiratzen nion eta horrek nire amona barrezka hastea eragiten zuen, eta gero liburua irakurtzen hasten zitzaidan, bere ahots leun eta goxoarekin. Liburua bukatzen zuenean, sofán lo geratzen nintzen, hurrengo goizera arte.

Urteak pasatzen joan ziren, baina hala ere, amonak liburuak irakurtzen zizkidan gauero. Baina guztia bukatu zen: bukatu ziren abenturak, bidaiak, animalia miresgarriak, egunak ametsetan galdua ematea, lagun harrigarriak... Den-dena bukatu zen. Nagusia egiten ari nintzen heinean, gero eta denbora gutxiago pasatzen nuen sutondoan aitona-amonekin, denbora gutxiago ematen nuen amonaren istorioak entzuten, gero eta gutxiago bisitatzen nituen...

Eta orain ez dut aukerarik, ezin dut amonaren ahots goxoa sutondoaren alboan entzun, ezin dut aitonaaren txokolate bero eta gozoa edan, ezin ditut egun eta gauak beraien ondoan eman. Orain beraien baserrira joaten naizenean, animaliak zaintzera, momentu bat hartzen dut sutondo aurrean jarri eta irakurtzen jarduteko, txokolate beroa prestatzen dut eta bertan pasatzen dut arratsaldea, baina hori ezin da konparatu amonaren istorioak kontatzeko dohainarekin edo aitonaaren txokolate magikoarekin.

Azkenean malkoak begietatik behera ditudala irteten naiz baserritik, baina baita irribarre batekin ere, nire aitona-amonekin pasatzen nituen momentu polit haiek gogoratzeagatik. Nire aitona-amonekin egon nahi dudanean, beti sutondo aurrean eseri eta ahalik eta urrunen bidaiatzen saiatzen naiz, ahalik eta abentura gehien bizitzeko, ahalik eta animalia miresgarri gehien ikusteko, hainbat leku ikusgarri ezagutzeko eta hainbat pertsona miragarriren lagun egiteko.

Ipuinak



June Sarrionandia Linaza

Akzesita 13 – 14 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



11
22

Maiatzean kuku

Jonek hirugarrenez bota du amua errekarra, eta han gelditu da zain, amuarrainen bat noiz agertuko.

Jonek 13 urte bete berri ditu apirilaren hogeian, betidanik izan du amets bat: bere aitona maitagarriarekin munduko ibai handienera, Amazonasera, arrantzan egiten joatea. Aitonak txiki-txikitatik egin du arrantzan. Bere itsasontzi handian ibili da batetik bestera, Bizkaiko Golkoan. Aitonarengandik ikasi ditu berak arrantzaz dakizkien bitxikeria xeblebre guztiak. Aitonak betidanik esan dio Amazonasen daudela munduko arrainik ederrenak eta handienak, kokodriloak baino handiagoak batzuk.

Jonek eskuak patriketan sartu ditu eta inoiz baino diru gehiago darama gainean, izan ere, bere amak sukaldeko apalean gordeta duen pote garden batetik hartu du. Bere amak ere amets bat du: bere abeslari gustukoen kontzertu batera joatea, eta badira hile batzuk ama aurrezten dabilela. Kristalezko pote baten sartzan du dirua aldian-aldian. Ematen ez badu ere, nekez aurrezten du.

Arrazoi on bat dauka amari egin diona egiteko. Etxean sarritan entzun du, kukua lehen aldiz entzuten duzunean, soinean dirua badaukazu,

urte oparoa izango duzula. Eta maiatza hasita dagoenez, kukua entzuteko egun egokia izango dela pentsatzen du, eta esperantzaz dago kukuaren kantu horren zain.

Arrantzan ari den bitartean, lortu dezakeen diruaz zer egingo lukeen amesten hasi da: txipiroiak arrantzatzeke txalupatxo bat erosi, Amazonas ibaia ezagutzen joateko hegazkinerako txartela erosi...

Halako batean:

—Kuku-kuku, kuku-kuku !

—Hara, Kukuaaaa !!!

Ez zuen pentsatzen gure mutilak horren azkar beteko zela bere nahia, eta pozez zorutzen, oihuka eta saltoka hasi da. Bere onera etorri denean, ziztu bizian batu ditu kainabera, poltsa, harrapatutako bi arrainak... Eta etxera abiatu da tximista baino bizkorrago.

Atetik sartu eta berehala, sukaldarako bidea hartu du amaren dirua bere lekuan uzteko asmoz. Momentu horretan, eskua poltsikoan sartu eta... zulo ikaragarri bat baino ez du aurkitu. Dirurik ez. Bihotza ia-ia ahotik atera zaio. Sinestu ezinik behin eta berriz arakatu ditu poltsiko biak. Prakak erantzi ere egin ditu, eta ondo astindu, baina txanponen arrastorik ez.

Bere bizitzako urterik onenaren esperoan egon eta diru guztia alferrik galdu du, amarena ere bai. Momentu batean joan zaizkio komuneko zulotik bere amets eta ilusio guztiak.

Orain gertatutakoa amari nola azalduko dion pentsatzeari ekin dio, baina argi du aurrerantzean atsotitz edo esamesei ez diela gehiagotan kasurik egingo eta errealitatean oinarrituko duela bere geroa. KUKU!!!

Ipuinak



Jone Berrizbeitia Munitxa

Irabazlea 15 - 16 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



Felisa-ren gamin

Mikelen amama Felisa beti izan zen oso piperra. Kopetilan egoten zen egun guztian, beti ozpinduta eta muturtuta. Jaiotzaz euskalduna izan arren, Estatu Batuetan bizi zen bere familiarekin. Iloba Mikelentzat, Felisa pertsonaia misteriotsua zen. Jakin-minez beterik, ilobak sarritan galdetzen zizkion Euskal Herriko kontuak, baina amonak ez zuen txintik ere esaten bere iraganari buruz. Mikelek hamabost urte zituela, Felisa hil egin zen, eta gutun bat utzi zion ilobari. Honelaxe zioen idazkiak:

2002ko irailaren 17a

Mikel maitea:

Badakit zuretzat beti izan naizela pertsona ilun eta goibela, bizipozik gabekoa. Eta ez zaizu arrazoirik falta. Ez dut inoiz zure jakin-mina ase nire jatorriari buruz, baina bada arrazoi bat horretarako. Zuk jakin ez arren, istorio luze eta mingarri bat daukat atzean, inoiz ahaztuko ez dudana; pentsatze hutsarekin begiak malkoz betetzen zaizkit. Ez zuk ez zure gurasoek ez dakite ezertxo ere honen gainean, beti gorde izan baitut nire baitan.

Euskal Herrian jaio nintzen 1917an, Mendiola inguruko baserri batean. Hiru ahizparekin batera hazi nintzen, ama gazterik hil bait zitzaigun. Hiruetatik gazteenak, Bixentak, ume-umetan harrapatu zuen tifusa, eta hain txikia izanik, koitaduak ez zuen izan indar nahikorik gaixotasunari aurre egiteko. Aita bageneukan, baina Ameriketara joana zen lanera, artzain. Hala, Pili eta biok geratu ginen etxean bakarrik, eta nahiko ondo konpontzen ginen, noizean behin Estatu Batuetatik heltzen zitzaigun dirulaguntzari esker. Horrela jarraitu genuen, ezkondu ginen arte. Pili Durangora ezkondu zen. Ni, berriz, Goxentzia baserrira joan nintzen bizitzera, nire senar Migelekin eta aitagarreba Juan Agirrerekin. 1936. urtea zen hura, eta ezkondu eta berehala lehertu zen Espainiako gerra zibila. Etxean guztiok ginen abertzaleak, euskararen eta euskal kulturaren aldekoak. Migel, nire gizona, errepublikar sutsua zen, elizaren etsai amorratua. Makina bat haserrealdi izan zituen aitarekin erlijio kontuengatik, Juanek ez baitzuen begi onez ikusten semeak elizaren kontra erakusten zuen amorru hura.

Herriko androk ez ginen gehiegi sartzen politika kontuetan, baina Francok euskara debekatu zuenean, lehenengo euskal eskolak antolatzen hasi ginen ezkutuan. Arratsaldero geratzen ginen Goxentziako ganbaran, udazkenean batutako sagar ximelen artean. Ez zen munduko leku erosoena, baina tira, konpontzen ginen. Pili Durangoko bere etxean gordetzen zituen batzarretan prestatzen genituen eskuizkribu guztiak. Pare bat hilabetez aritu ginen horrela, inongo arazorik gabe. Baina, ai!, zoritxarrik handiena gertatu zitzaigun: 1937ko martxoan bonba zaparrada bat jausi zen Durangon. Izugarritzko hondamendia izan zen hura, eta bonbek txiki-txiki egin zituzten makina bat etxe, horietako bat ahizparena. Zorionez, Pili ez zegoen etxean momentu hartan, baina hilabeteetako lana errauts bihurtua geratu zen. Hori gutxi balitz, bonbardaketaren ostean gure senarrak atxilotu zituzten, beste gizon askorekin batera, eta Santoñako (Kantabria) kartzelara eramanez, errepublikarrak izateagatik. Beraz, lan guztiaz gain, etxeakoak ere galdu genituen.

Benetan lur jota geratu ginen, baina ez genuen amore eman. Erabaki genuen hobe zela kexak alde batera utzi eta ekintzara igarotzea, eta, hortaz, Piliren kontaktu batzuen bitartez, Euskal Emakume Espioien Sarean sartu ginen, "Alava" sarean. Lau andere ziren buruzagiak. Buruek arduradun batzuk jarri zituzten probintzia bakoitzean, eta baita azpi-buru

batzuk ere. Neu nintzen horietako bat, Durangaldeko arduradun izendatu ninduten eta. Kargu hori misio garrantzitsu bat betetzeko eman zidaten. Sareko kideek esan zidaten gure baserria, Goxentzia, leku estrategikoan zegoela kokatuta, arbola artean ezkutatuta, inork ez ikusteko moduan, eta oso aproposa zela agiri sekretuak eta informazio militarra gordetzeko. Horrelaxe hasi nintzen sarearentzat lanean.

Zapaturo plazako merkatura joaten nintzen ortuariak saltzera. “Doblefondo” deitzen genion saski handi bat hartzen nuen, eta porru, letxuga eta babaz bete. Bere egitura bereziari zor dio izena, kanpotik otzara arrunt bat dirudien arren, bere hormak zume ilara bikoitzaz daudelako eginda, eta tartetxo bat geratzen delako ilara bien artean, ia igarri ezinekoa. Esan bezala, saskia ortuariz betetzen nuen merkatura eramateko. Hara heltzean, otzara hustu eta nire zain zegoen emakume batek hainbat agiri ematen zizkidan, eta nik tartetxo ezkutu horretan sartzen nituen, “doblefondoan” hain zuzen ere. Imajinatuko duzun moduan, gordetzen nuen hura informazio militarra zen. Heriotza zigorrera kondenatutako euskal presoek gaineko dokumentuak ziren. Nondik zetorren informazio hura? Esango dizut. Lehen aipatu dizudan bezala, gure senarrak Santoñako espetxean zeuden, eta haiekin batera, Eusko Jaurlaritzan kargu garrantzitsuak zituzten hainbat euskal politikari. Ezinbestekoa zen gizon horiek espetxetik ateratzea, frankisten kontrako borrokarekin aurrera jarraitu nahi bagenuen. Preso guztiek zuten espediente bana, bakoitzaren kartzela zigorra edo heriotza kondena zehazten zuena. Ahizpak garbitzaile lanak egiten zituen presondegiko bulegoetan, eta bere zeregina zen dokumentu horiek lapurtzea. Agiri haietan agertzen ziren izenak eta epaiak faltsutu beharra zegoen, hiltzera kondenatuta zeuden presoek bizia salbatzeko. Hortaz, nire egitekoa zen Pili ateratako dokumentuen edukia aldatzea. Faltsututakoan, Goxentzian gordetzen nituen dokumentuak, Pili Santoñatik etorri arte, eta bueltatzen zenean, hari ematen nizkion, berriro kartzelara eramanez zitzan.

Hori dena gutxi ez eta, usoak trebatzen ere jarri ninduten, mezulari lana egin zezaten. Harrigarria irudituko zaizu, baina sasoi hartan hori zen aukerarik onena lorratzik utzi gabe jendearekin komunikatzeko. Lan handia zen neuk bakarrik egiteko, baina ez neukan aitagarreba Juan zaindu beharrik, egun batzuk lehenago bihotzekoa eman eta Bilboko



ospitalera eraman behar izan bainuen. Ez zen egoera samurra, baina horrek asko errazten zizkidan gauzak.

Zapatu batean, astero legez merkatura heldu nintzenean, zain neukan emakumeak esan zidan Francoren polizia militarrek atxilotuta zeukala sareko kide bat salaketa anonimo baten ondorioz. Horrek esan nahi zuen misioa arriskuan zegoela, gauza jakina baitzen berehala hitz eginaraziko ziotela. Argi zegoen, beraz, polizia militarra gain-gainean izango genuela gure pauso guztiak zaintzen. Atxilotutako emakumeak hainbat gauza aitortu zituen tortura pean, oraindik ez dakit zer zehazki, baina kontua da frankistak dokumentu haien bila Durangalde osoa goitik behera arakatzen hasi zirela. Mendiolatik gero eta hurbilago zeuden, eta sare-buruek erabaki zuten ezin nintzela etxetik irten, badaezpada. Beldurrak jota, leiho eta kortina guztiak zarratu nituen eta atea giltzez itxi, ikararen ikaraz dardarka. Ez dakizu ondo zer bizi izan nuen momentu hartan! Polizia frankistak harrapatu ezkerro, gupidarik gabe fusilatuko ninduten.

Zazpi egun igaro nituen baserriko sotoan, bakar-bakarrik, izuak jota, lantzean behin ganbarara kuku bat eginez txostenak han zeudela konprobatzeko. Kanpoan ez zegoen mugimendurik, ordea, eta erabaki nuen bazela ordua baserria utzi eta nire bideari ekiteko. Hala, telegrama bat bidali nien nire kontaktuei. Hauxe idatzi nuen orri zati batean:

GURE JUAN BILBON. STOP. GAUZAK ONERA EZ BADOAZ, LASTER LURPEAN. STOP. ESAN PILIRI. STOP.

Hurrengo zapatuan, uso bat hartu eta hankan lotu nion paper zatia. Ondo trebatua zegoen eta seguru nengoen bere helmugara iritsiko zela. Banekien kontaktua zain egongo zela merkatuan. Hala, leihoa zabaldu eta askatu egin nuen.

Handik pare bat ordura, txoria merkatu inguruko arbola batean pausatu zen, aurretik erakutsia nion bezala. Nire kontaktuak berehala ikusi zuen usoa, eta goragoko ordezkarietara eraman zien telegrama. Une hartan hasi zen istorioa korapilatzen.

Lehen esan bezala, preso zeudenei lagundu nahian genbiltzan, gure misioa baitzen euren bizia salbatzea. Horien artean aurkitzen zen Juan Bilbao, Jaurlearitzako Kanpo Gaietarako arduraduna, heriotza zigorrera

kondenatutako azken presoetariko bat. Sareko kideek arretaz aztertu zuten papera, eta han irakurritakoarekin ulertu zuten Juanen eta beste hainbaten gaineko dokumentuak lurpean gordeko nituela, baldin eta Frankisten tropek ez bazuten laster baserri ingurutik alde egiten.

Hala, Durangaldeko sarekide guztiak batu ziren pala eta aitzur banarekin, eta denak abiatu ziren Goxentziarantz agiri haien bila. Baina polizia militarra ere inguruan zebilen zelatan. Mendiolako galtzadatik gora zihoazela, emakumeak ez ziren konturatu Francoren tropa bat zegoela basoan ezkutatuta, hain zeuden murgilduta planaren antolamenduan:

—Goxentziako ortutik hasi behar dinagu! —zioen batek.

—Felisa ez dun hain ergela, ez zizkinan paperak denen bistan utziko! —besteak.

—Baserriko soto azpian egongo ditun seguruenik! —hirugarren batek.

Eta bien bitartean, etsaia guztia entzuten. Polizia gehienek ez zekiten euskaraz eta ez zieten tutik ere ulertuko. Hala ere, susmo txarren bat hartuta, polizia atzetik abiatu zitzairen haiek konturatu gabe. Ez nago ziur zerk bultzatu zituen neskak jarraitzera, seguruenik susmagarria irudituko zitzairen emakume talde bat basoa zeharkatzen ikustea iluntzean. Goxentziara heldutakoan, erremintak atera eta lurrean aitzurka hasi ziren. Orduantxe konturatu ziren poliziak informazio sekretu eta garrantzitsuren bat egon zitekeela lurpean gordeta. Birritan pentsatu gabe, emakumeei tiroka hasi zitzaizkien, inongo errukirik gabe. Sarraski hartan dozena bat emakume hil ziren, horietako bat Pili.

Ni, ordurako, aspaldixotik alde eginda nengoen Goxentziako sototik, hain estimatuak genituen agiri haiek kolkoan sartuta. Sarraskiaren biharamunean, gutunazal bat iritsi zen Bilboko ospitaletik etxera, barruan eskela batekin.

†

Juan Agirre jauna

(Bixenta Bizkarraren alarguna) (Goian bego)

Bilbon hil zen, 1939ko uztailaren 17an, 81 urte zituela.

Semea, MIGEL; anaia, EMILIO (†); erraina, Felisa; eta gainerako senideak.



Badakit ez duzula zipitzik ere ulertzen, baina azalduko dizut. Dakizun moduan, Juan aitagarreba Bilboko ospitalera eraman behar izan nuen, makalik zegoelako. Erietxean bertan hil zen, beste bihotzeko batek eman ondoren. Juan ospitalean zegoenez, eta Goxentzia inguruan mugimendurik sumatu ez nuenez, ez nuen arazorik izan baseritik alde egin eta nire misioa betetzeko, horregatik bidali nien telegrama kontaktuei. Nire asmoa zen Piliri jakinaraztea Juan hilzorian zegoela Bilbon. Baina, zoritxarrez, sareko kideek gaizki interpretatu zuten nire mezua eta ulertu zuten lurpean ezkutatuta nuela Juan Bilbao presoaren txostena. Gaizki-ulertu hark ondorio lazarriak ekarri zituen sareko kide guztiontzat. Sareko emakume haiek guztiak nire telegramaren erruz galdu zirela gainditu ezinik, atzean utzi nituen Migel, gainerako lagunak eta ondasun guztiak, eta Ameriketarako lehen itsasontzia hartu nuen. Aitarekin egoteko beharra nuen, dena azaltzeko eta barruan neukan egonezina arintzeko. Ahalegindu nintzen dena ahazten, baina ezinezkoa zitzaidan. Bizitza berri bat ere hasi nuen, eta familia bat osatu, baina beti nituen bihotzean senarra –Santoñako presondegian utzi nuena–, Pili eta sarraski hartan hildako lagun guztiak. Inoiz ez diot neure buruari barkatuko telegrama madarikatu hura bidali izana.

Horra nire saminaren arrazoa. Badakit laster iritsiko dela nire ordua, horregatik erabaki dut gutun hau idaztea, idatziz esan nahi dizkizudalako hitzez konta ezin dizkizudanak.

Bihotzez,

Zure amona Felisa.

Ipuinak



Lucia López Garcia

Akzesita 15 – 16 urte bitartekoen sailean
- Fray Juan de Zumarraga Institutua -



11
28

Ate bat. amets bat

Arantza Pennsylvaniako etxe baten bizi zen emakume apala zen. Bere bihotza emozioz betetako errusiar mendia zen. Alde batetik, hainbeste oroitzapen sortu zituen etxea uzteak tristura eragiten zion, eta, beste alde batetik, baikorra zen eta jakin-min handia zuen bizitzak zer ekarriko zion jakiteko. Beti esan ohi zuen, zaharra izan arren, inoiz ez zitzaizkiola esperientzia berriak bizitzeko gogoak desagertuko.

Maletak egiten amaitu berri zuen, eta kutxa guztiak sarreran zeuden jada, mudantza-kamioian sartzeko prest. *Mixi* izeneko katuaren transportina hartu, eta atea ixtera abiatu zen. Atea itxi zuenean eraikinari begira geratu zitzaion. Orduan, begiak malkoz bete zitzaizkion, osorik ikusiko zuen azkenengo aldia zelako. Hiru egun lehenago gizon batek deitu zion eraikina botako zutela esanez. Zergatia galdetu zionean udaletxeak agindu zuela ihardetsi zion, eta lehenbailehen etxea utzi behar zuela. Berri horrek ustekabeen harrapatu zuen Arantza. Nork lagunduko zion gauza guztiak kutxetan sartzeko? Nola aurkituko zuen beste etxe bat? Galduta ikusten zuen bere burua, 78 urte eta kalean, etxe barik, lagunik gabe, familiarik gabe, baina ez zuen amorerik emango. Eraispnaren arduradunari eman zizkion etxeako giltzak eta hark ohartarazi zion mudantza-kamioiak udaletxera

eramango zituela bere gauza guztiak, eta hiru egun zituela jasotzeko. Osterantzean, erre egingo zituzten.

Bi egunez kaletik noraezean ibili ondoren, herriaren kanpoaldean etxe bat aurkitu zuen. Ez zirudien inor bizi zenik han. Kas-kas atea jo zuen, eta ez zuen erantzunik jaso. Zabalik zegoela konturatu zen, eta ez bat, ez bi, eskutokitik heldu eta bultzatu egin zuen. Barrualdea ikusteak hotzikara eragin zion. Oso zaharra zirudien guztia, eta hautsez betea zegoen. Nahiz eta izututa zegoen, etxeko logela guztiak arakatu zituen. Geroago, udaletxera deitu zuen bere gauzak berreskuratzeko. Udaletxekoak heldu bitartean etxea garbitzen hasi zen. Beste etxe bat erosi arte bertan biziko zen, ez zekien zenbat denboraz, baina lau egun izan arren ahalik eta erosoan egon nahi zuen. Handik ordu batera etxe guztia garbi zegoen, egongela izan ezik. Gela handiena eta beldurgarriena zen. Altzariei hautsa kentzen ari zitzairen soinu bat entzun zuenean. Oilo-ipurdia jarri zitzaion eta beldurrak gorputz guztia zeharkatu zion. “Miau” entzun zuen eta lasaitu egin zen: zarata egin zuena *Mixi* izan zen, katua sagu bat harrapatu nahian baitzebilan. Garbitzen jarraitu zuen eta, halako batean, lurretik zetorren hots bat entzun zen. Zoruko lauza bat altxatuta zegoen eta zapaltzean zarata egiten zuen. Arantza lauza kentzera makurtu zen, ikusiko zuena imajinatu gabe. Eskailera batzuk ikusi zituenean, begiak igurtzi zituen. Ametsetan ari al zen?

Eskailerek atez eta ispiluz betetako gela ilun batera zeramatzen. Arantza izututa zegoen, guztia beldurrezko pelikula bat zirudielako: bere etxea botako zuten, etxe zahar eta huts bat aurkitu zuen eta, are harrigarriagoa zena, gela misteriotsu bat zegoen egongelaren azpian. Zoratzen hasia zen? Arantzak hainbat galdera zituen buruan. Gainera, beldurtuta eta urduri zegoen. Hala ere, poliki-poliki ispilu batera hurbildu zen. Zer ari zen ikusten? Esploratzailez mozorrotuta ote zegoen? Ez, ezinezkoa zen. Beste ispilu batera hurbildu zen eta... Erromatarrez mozorrotuta zegoen? Ispilu guztietatik pasatu zen eta bere burua garai desberdinetan ikusi zuen: erromatarren garaian, historiaurrean, 80ko hamarkadan, etorkizunean... Baina oraindik gauza bat jakitea geratzen zitzaion: zer egongo ote zen ateen beste aldean?



11-22

Lehenengo atea zabaldu zuen, eta dinosaurio bat ikusi zuen. Atea zeharkatu eta oihan batean zegoela ohartu zen. Sorbaldatik gertu norbaiten arnas sakona nabaritu zuen. Biratu ere ez zen egin, bete-betea asmatu zuen, lurrera begiratu eta itzala ikusi besterik ez zuen egin, atzean zuena dinosaurio bat zela ohartzeko. Ziztu bizian korrika hasi zen, baina dinosaurioa atzetik zetorkion. Urrunean ibai bat ikusi zuen, eta ibaiaren beste aldean ate bat. Korrika egiten jarraitu zuen ibaira iritsi arte. Orduan, uretan murgildu zen, ahalik eta azkarren igeri egin, eta besoa luzatu zuen. Azkenean, atea zeharkatzea lortu zuen. Oso nekatuta eta beldurtuta zegoen, urteak zeramatzan hainbeste korrika egin gabe. Geroago, hobeto sentitu zenean, ausaz, beste ate bat zabaltzea erabaki zuen.

Oraingo honetan, eszenatoki bat eta hamabost pertsona inguru ikusi zituen dantzan. Oso azkar asmatu zuen non zegoen: 80ko hamarkadan, Broadway-eko musikal bat ikusten. Gizon batek, musikalaren zuzendaria zirudiena, besotik hartu eta eszenatokira ateratzeko bultzatu zion. Arantzak ez zekien zer egin. Gainerakoek egiten zuten koreografia kopiatzen hasi zen. Leloa ematen zuen, baina dinosaurioarena baino askoz dibertigarriagoa eta seguruagoa zen Broadway-eko musikal batean dantza egitea. Bi minutuz aritu zen dantzan, nahiz eta Arantzari bost orduz aritu zela iruditu. Bukatutakoan, dantzari guztiak *backstage*-era joan ziren. Arantzari kamerino batera joateko esan zioten, eta sartu zenean beste ate bat ikusi zuen. “Esperientzia polita izan da hemen dantza egitea, baina etxera bueltatzeko garaia da” pentsatu zuen. Eskua luzatu, eskutokia heldu, eta konturatzerako, atez eta ispiluz betetako gela ilun eta misteriotsuan zegoen berriro. Jakin-min handia zuen beste ate baten atzean zer egongo ote zen jakiteko. Horregatik, azkeneko atea zabaldu eta... kotxe hegalari bat! Zalantzarik gabe, etorkizunean zegoen, kotxe hegalarien geltoki batean hain zuzen ere. Kotxe batera sartu, eta atea itxi bezain laster, hegoak atera zitzaizkion. Berehala lurretik altxatzen hasi zen eta oso abiadura handia hartu zuen. Etxe orratzak inguratzen zituen, txiri-bueltak ematen zituen... jolas-parke batean zegoela zirudien. Bat-batean, Arantza geldirik geratu zen, zer egin jakin gabe. Eraikin baterantz zihoan eta talka egingo zuen. Begiak itxi zituen. Beranduago, kolpe bat nabaritu zuen eta danbateko bat entzun zen.

Arraro sentitzen zen, dena ilun ikusten zuen, eta ahotsak entzuten zituen. Begiak zabaltzea lortu zuenean ospitale batean zegoela konturatu zen. Ohe ondoan gau-mahai bat zegoen, eta bertan egunkari bat eta bere betaurrekoak. Betaurrekoak jantzi, eta egunkarian jartzen zuena irakurri zuenean bihotzondokoa izan zuen. “Data: 2002ko maiatzaren 21a. Laurogei urte bueltako andre batek bihotzekoa izan du bere etxea eraisten zutela ikusterakoan”.

Ipuinak



Asher Cerezal Gutierrez

Irabazlea 17 – 18 urte bitartekoen sailean
- Fray Juan de Zumarraga Institutua -



Berrinero ikusiko zaitut

Nire ingurua begiratzen dut, denak isilik daude, jantzi dotoreek beraien gorputzak apaintzen dituzte elkarri begiratzen dioten bitartean, nola sentitu ez dakitela. Ulertzen ditut, bakarrik pasatu da urte bat elkar ezagutu genuenetik eta orain hemen gaude elkarrekin. Nik ere ez nuen espero dena hain arin gertatzea, suposatzen dut bizitzak harritu egiten zaituela gutxien espero duzunean. Trajea egokitzen dut, nire poltsikoko orria ateratzen dut eta eztarria garbitzen dut bertaratutakoei irribarre txiki bat eskainiz, jarraian irakurtzen hasteko:

Ez dakit nondik hasi..., erantzuna begi-bistakoa da, hasieratik ezta? Baina hau ez da hain erraza, nire burua adieraztea eta gure istorioa kontatzea azken aspaldian egin dudan gauzarik zailena da. Zein izan zen hasiera? Non hasi zen dena? Autobusean elkar ikusi genuen lehen aldian hasi zela uste dut, nire libururik gustukoena ari zinen irakurtzen. Diotenez, norbait zure liburu gogokoena irakurtzen ikusten duzunean, liburua pertsona bat gomendatzen ari zaizu. Orain badakit egia dela, nire arreta deitu zenuen, nola ez nion erreparatuko munduko libururik onena irakurtzen zuen ilegorri hari? Arinki ez tul egin nuen, orain onartzen dut zure arreta deitzeko egin nuela, eta nire harridurarako ondo atera zen. Gure begiradek

topo egin zuten momentu horretan, zure irakurketa etenez, eta erreparorik gabe zure begietan zegoen urdin zian ezohiko hori behatu nuen. Arretaz begiratzen nizula konturatzean, irribarre txiki bat eskaini nizun lotsatuta, eta zure eskuetan zegoen libururaino jaitsi nuen begirada:

—Zure osasun mentala kontserbatu nahi baduzu, ez jarraitu irakurtzen liburu hori gomendatu nizun.

Zure osasun mentalaren bila zeundela erantzun zenidan, nik esan nizun neurearekin joan egingo zela amodio sekretu gisa. Ondoren liburu hainbat aldiz irakurrita zenuela esan zenidan eta nik masokista deitu nizun, baina onartzen dut nik ere hainbat aldiz irakurri dudala, azken finean, denok dugu masokista puntu bat.

Nire inguruko jendeak barre egiten du, esan dudanari arrazoa emanaz, eta nire irakurketa segundo batzuk etenez. Azken barreak mozten direnean irakurketarekin jarraitzen dut:

Hori gure lehen eta azken elkarrizketa izango zela uste nuen, beste autobus maitasun bat izango zinela, berriz ikusten ez duzun horietako bat. Zorionez bizitzak berriz elkartu gintuen, oraingoan gutxien espero nuen leku eta orduan. Hiriaren kanpoaldean zegoen hustutako zubi batean nengoan, goizaldeko ordu haietan guztiaz jabetzen zen isiltasun bereziaz gozatzen. Burua oroitzapenetan galduta nuen, burbuila baten barruan nengoan, baina errealitatera bueltatu nintzen zarata bat nire atzean entzutean. Zu zinen, barkamena eskatu zenidan ni beldurtzeagatik eta azaldu zenidan ezin zenuela lo egin eta zure burua garbitzera atera zinela. Joateko asmoa zenuen, baina zure presentzia lasaigarria zenez nirekin geratzea eskatu nizun, horrela egin zenuen. Nire ondoan eseri zinen ustekabean ez jotzeko kontuz, eta zu gertu izanda tabako usain nabarmena igarri nuen. Momentuan harritu egin ninduen begi urdindun mutilak erretzeak, ez dut ulertzen zergatik, nire buruan inkontzienteki idealizatu zintudalako izan zela uste dut.

—Erre egiten duzu -baieztatu nuen.

—Eta zuk edan egiten duzu -erantzun zenidan nire ondoan zegoen alkohol botila seinalatuz.

—Inor ez da perfektua.



1/52

—Uste duzu erretzeagatik edo edateagatik ezin garela perfektuak izan? -barrezka galdetu zenidan.

—Zuk ez?

—Ez ba! Gure izateko modua da perfektuak egiten gaituena, ez badiogu inori minik egiten berdin da zer egiten duzun zure bizitzarekin, baina gauza batean arrazoia emango dizut, ezinezkoa da perfektua izatea, beti dago gaizki dagoen zerbait, azaldu zenuen.

Isilik geratu nintzen zuk esandakoa pentsatuz, ez nuen inoiz horrela ikusi, baina zerbaitetan oker zeunden, perfektuak izan gaitzke, zure hitzekin erakutsi zenidan goizalde horretan.

—Zergatik da hain garrantzitsua leku hau zuretzat? -galdetu zenidan, baina berehala damututa zeundela nabaritu nuen- Barkatu, galdera oso pertsonala da.

—Istripu bat egon zen hemen, familia bat zubitik pasatzen zegoen hondartzara heltzeko asmoarekin, elkarrekin egun bat pasa nahi zuten. Zubiaren egituran zegoen akats batengatik autoa irauli egin zen eta istripuan hiru pertsona hil ziren: gurasoak eta anaien artean zaharrena. Bizirik atera zen bakarra gazteena izan zen, bederatzi urtekoa, bere anaia nagusiak azkar erreakzionatu zuen eta txikiena bere gorputzarekin babestu zuen kolpetik. Ni naiz anai gaztea eta hil zirenak nire gurasoak eta nire anaia Iker ziren.

—Asko sentitzen dut, ez nekien ezer horretaz.

—Jakina ez zenekiela, jainkoagatik! Ez dakit zure izena, bi aldiz bakarrik elkartu gara eta ez dizkiot nire zorigaitzak edonori kontatzen.

—Argi, Argi dut izena -zeure burua aurkeztu zenuen.

—Ekaitz -irribarre batekin erantzun nizun-, zure txanda da, zein da zure bizitzaren historia?

Zure aitak gaixorik zegoelako eta zoriontsuen izan zen lekuan hil nahi zuelako etxez aldatu zinetela azaldu zenidan, berarekin ezer gertatuko ez balitz bezala egiten zenuen, baina errealitatean zure aita galtzearen beldur zinen, ez zenekien nola kontrolatu zure gorputzean zehar igarotzen ziren emozio guztiak.

Ez dakit zergatik, baina goizaldeak badu dohaina gu sentikor jartzeko eta gure barrena zintzotasun osoz adieraz dezagun lortzeko. Hau gertatzen denean normalean damutu egiten gara, baina orduan ez zen horrela izan. Orduak igaro genituen mintzatzen, egunsentiaren argi apalak gure aurpegiak argitu zituen arte. Gure beldurrik handienak, kezkek eta desirak partekatu genituen. Goizalde hartan lehengo z liburu zabal bat izan ginen bata bestearentzat eta ez naiz inoiz horretaz damutu. Ez nintzateke inoiz gai izango hainbeste gustatzen zitzaidan begirada horren atzean ezkutuan zegoen mina imajintzeko. Hori izan zen konfesio-gau ugarietako lehena. Ondoren, arratsalde bihurtu ziren, eta gero, goiz. Zurekin dena erraza zen, seguru sentiarazten ninduzun eta garai hartan beldurtu egiten ninduen konfiantza eman zenidan. Joango zinela ziur nengoen eta berriz bakarrrik geratuko nintzela banekien, baina ez zen horrela izan, nire ondoan geratu zinen, zubia bizitzaz bete zen eta denbora luzean lehen aldiz ondo sentitu nintzen, ondo sentiarazten ninduzun.

Gau horietako baten, zubian geundela, nire osasun mentala aurkitu nuela jakinarazi nizun eta Argi deitzen zela azaldu nizun, nire harridurarako zuk ere zure osasun mentala aurkitu zenuela erantzun zenidan eta Ekaitz deitzen zela esan zenidan.

—Badirudi arrazoa nuela, gure osasunek elkarrekin ihes egin zuten amodio sekretu gisa... -esan nuen zure erantzuna entzutean.

Batera barre egin genuen eta zure ondoan kikildu nintzen gaueko hotzetik babestuz eta zure argiak ekaitzaren ondoren erori zen tximistak sortutako zauriak senda zitzan utziz, hori bai, kontu handiz nire iluntasunak zure argiarekin ez amaitzeko. Minutu batzuk geroago altxatu zinen eta zure mugikorra sakelatik atera zenuen.

—Zertan zabilta? -galdetu nuen.

—Hotz handia egiten du.

—Jada bagoaz?

—Ez, dantzan egingo dugu -erantzun zenidan nire besotik tiraka eta lurretik altxatzea lortuz.

—Erotuta zaude dantzatuko dudala uste baduzu, ez dakit dantza egiten.

—Nik badakidala uste duzu? Gure beste aukera hipotermiak jota hiltzea da, zuk aukeratu, baina nik lehenengo aukera nahiago dut.

Irribarre egin zenuen hautatutako abestia hasi zenean, ez zen abesti geldoa, guztiz kontrakoa, festa abesti bat zen, energia ematen zizun bat eta edozein modutan dantza zitekeena. Hori egin zenuen, edozein modutan dantzatu, egia zen ez zenekiela dantzatzen, baina niretzat ezinezkoa izan zen zure dantza kaskar hori ez jarraitzea. Handik gutxira han genbiltzan biak batera ero moduan dantzatzen erritmorik gabe, baina perfektua zen, zurekin gauza guztiak diren bezala. Abestia bukatu zen eta jarraian hurrengo hasi zen, *Radiohead* taldearen *Creep*, eta gure ahotsak elkartu egin ziren abestiaren letra abestuz.

Euria egiten hasi zen, baina ez zitzaigun axola izan, bata bestearen begiradan galduta geunden abesten elkar begiratzen genuen bitartean. Abestia bere amaierara heldu zen eta isiltasunak bildu gintuen. Ez zen isiltasun deseroso bat; aitzitik, ez zegoen hitz egin beharrik, gure begiradek sentitzen genuen guztia transmititzen zuten.

Hain berezia zara... -esan zenuen nolabaiteko nekearekin zure ahotsean, banekien zure asmagatik zela.

—Maite zaitut -aitortu nizun munduko modurik zintzoenean eta esandakoaz konturatu nintzenean gorri jarri nintzen zentzu gabeko hitzak zezeltzen esandakoa aldatzeko ahalegin batean, baina ez zegoen atzera bueltatzeko modurik.

—Ekaitz, lasai -esan zenidan baretasunez.

—Ez, barkatu.

—Ez eskatu barkamenik.

Zezeltzen jarraitu nuen, esaten zenuenari arreta ipini gabe. Oso urduri nengoela nabaria zen. Azkenean kokotsetik burua altxatu zenidan eta gure ezpainak musu gozo eta epel batean elkartu ziren. Nire urduritasuna desagertu egin zen nire hitzekin batera.

—Maite zaitut.

—Zer? -galdetu nizun gertatutakoagatik burtzoratu.

—Maite zaitut -errepikatu zenuen.

Eta horrela izan zen, musu batekin isilarazi ninduzun eta dena klixer modu batean gertatu arren, perfektua izan zen zurekin nengoelako. Ez dut inoiz ahaztuko, nire burua gogoratzeko gai ez denean nire bihotzak gogoratuko du, zurekin pasatu dudan segundo bakoitza bertan grabatuta geratu delako.

Horren ondoren, dena arin joan zen, elkarrekin sendatzen ari ginen, zure familia ezagutu nuen, hilerrira lagundu ninduzun eta bertan nire familiari zutaz hitz egin nion, beraien hilobietako loreak aldatu genituen, urteak zeramatzaten aldatu gabe, hilerrira itzultzeko indarra aurkitzen ez nuelako, baina zurekin batera egin ahal izan nuen; behar nuen indarra eman zenidan. Hondartzara eramanez ninduzun, eta zuri esker leku itsusia izateari utzi zion. Zuri esker jada ez du minik ematen eta oroitzapenez goza dezaket.

Begirada orritik altxatu eta nire ingurura begiratzen dut, denak negarrez ari dira, nik ez dut egiten oroitzapenez gozatzen erakutsi zenidalako.

—Ez dut hau behar -esaten dut orria poltsikoan gordetzen dudanean bitartean-familiako kide bat bezala hartu ninduzuen eta lehenengo egunetik seme bat bezala tratatu ninduzuen. Eskerririk asko bederatzi urteekin galdu nuen familia emateagatik eta batez ere eskerririk asko Argirekin egoten uzteagatik arazorik gabe.

—Eskerririk asko zuri Argi zoriontsu egiteagatik -Argiren aitak erantzuten du.

Irribarre egiten dut, nire begirada bertaratutako guztiei zuzenduz. Aurten gurekin egon direnak dira, eta hitz egiten jarraitzen dut, oraingoan orririk gabe:

Nire bizitzako urterik onenaren ondoren, hemen bildu gaituen afaria iritsi zen. Dotore jartzeko eskatu zenidan, eta behin eta berriro galdetu nizun arren, ez zenidan esan nora eramango ninduzun. Nire bila etorri zinen, zure begien koloreko alkandora bat zeneraman, gaur daramadan trajearen kolore berekoa. Eskutik hartuta etxadi batzuk ibili genituen eta lekutik hurbil geundenean begiak oihal batekin estalki zenizkidan.

—Ez dut ibiltzeko asmorik nondik noan jakin gabe -esan nuen.

—Nik gidatuko zaitut.

—Eta erortzen banaiz?

—Ez zara eroriko.

—Ziur zaude?

—Ekaitz, nitaz fidatzen zara?

—Galderak mindu egiten nau -adierazi nuen.

Azkenean zure argibidek jarraituz ibiltzen hasi nintzen, ez nuen prestatu zenidan sorpresa zapuztu nahi, minutu batzuk gehiago jarraitu genuen oinez eta azkenean oihala kentzeko eskatu zenidan. Jatetxe eder baten aurrean geunden, terraza egurrezko ohol batzuek osatzen zuten eta haien artean zuhaitz batzuk zeuden, haietatik lila koloreko lore eder batzuk ernetzen ziren. Jatetxearen hormak beirate handiak ziren eta beraietatik lekuaren barrualdea ikus zitekeen.

—Sar gaitezen -esan zenuen.

—Zer? Aberatsa zara eta ez didazu esan?

—Horrelako zerbait -barrez erantzun zenidan.

—Horrelako zerbait!?

—Bai, baina horrek orain ez du garrantzirik. Sartu gaitezen, erreserba dugu eta gure zain daude.

Zure aginduak betez sartu egin nintzen, alde guztietara begiratzen nuen, lekuko edertasuna preziatuz, zuk handik gutxira gure mahaira eramango gintuen emakumearekin hitz egiten zenuen bitartean. Ez naiz inoiz nekatuko ikusi dudak lekurik politena zela errepikatzeaz.

—Gustatzen zaizu? -galdetu zenidan eskatutako janaria itxaroten genuen bitartean.

—Dirutza itzela balioko du honek. Badakizu ni “Happy meal” batekin zoriontsua naizela.

—Berdin dio, zabor-janaria baino gehiago merezi duzu.

—Burutik jota zaude.

—Bai, zuganako maitasunagatik -irribarrez erantzun zenidan.

Gorritasuna nire masailetan nabari nuen eta aurpegia bi eskuekin estali nuen.

—Ez esan horrelako gauzarik, gorri jartzen naiz-eta.

—Tomatetxo bat zara.

—Gelditu zaitetz! -eskatu nizun gero eta gorriago jarritz.

—Zergatik? Polit zaude gorritze zarenean -barre egin zenuen, baina utzi egin zenuen zapi gisa geneukan oihal zatiak zure aurpegia jo zuenean.

—Kontuz, hurrengo koilara bat izango da -adierazi nuen koilara altxatuz.

—Ondo da, su-etena -erantzun zenidan bi eskuak altxatuz.

Muntatutako eszenatxoaren ondoren, bazkaria iritsi zen eta alai hitz egiten genuen bitartean afaldu genuen, afaria zein gozoa zen behin eta berriro errepikatzen nuelarik.

—Inoiz jan dudan hoherena da -errepikatu nuen hamargarrenez.

—Tira, ohitu zaitetz, hau bezain ondo jango duzu uzten nauzun arte.

—Ez zaitut inoiz utziko -erantzun nizun.

—Ez?

—Noski ezetz, gertatu zaidan onena zara -baietsi nuen.

—Horrela bada... -nire aurrean belaunikatu zinen, eskuineko belauna lurrean jarrita, eta kutxa beltz txiki bat atera zenuen poltsikotik- Nire aitona eraztun honekin ezkontzea proposatu zion aitona, eta berdin nire gurasoek ere... nire txanda iritsi da. Ekaitz Aguirre, nahi al duzu nire ondoan egon hiltzen naizen egunera arte nirekin ezkonduz? Gaur bezain ondo jango duzula zin egiten dut.

—Argi Unzalu, zurekin egon nahi dudala argi daukat ezagutu zintudan egunetik. Beraz, bai, zurekin ezkondu nahi dut eta hau bezalako luxuzko jabetxeetara eramanezin bazaitut ere, hitz ematen dizut zabor-janarien lokal onenetara eramango zaitudala.

Nire erantzunaren aurrean barre egin zenuen, eraztuna jarri zenidan



7-22

eta besarkatu egin ninduzun jatetxeko isiltasuna ingurukoen txaloeak hausten zuten bitartean. Munduko gizonik zoriontsuena nintzen, denbora gutxirako tamalez.

Hotza egiten zuen atera ginenean eta berokia utzi zenidan. Irteeraren aurrean bost laguneko talde bat zegoen, edaten eta garrasika. Guri begiratu eta biktima ideala ikusi zuten, botilak jaurtitzen hasi zitzaizkigun, gure sexu-joeragatik irain mota guztiak oihukatzen zituzten bitartean. Jaramonik ez egiten saiatu ginen, baina kasurik egin ez eta begiratu ere ez geniela egiten ikusita, haserretu egin ziren eta gu jotzeko asmoz hurbildu ziren. Modu babesgarrian nire aurrean jarri zinen, baina kolpeak iristen ari zitzaizkidala ikusita, lurrera etzateko eta burua babesteko eskatu zenidan. Hasieran ezetz esan nizun, baina etsipena ikusi nuen zure begietan eta azkenean eskatutakoa egin nuen. Lurrera bota nintzen burua estaliz eta zu, tamainaaldea aprobeztatuz, nire gainean jarri zinen, ni babestuz eta kolpe guztiak jasoz. Negar-zotinka ari nintzen zure kexuak entzunez eta zure gorputzetik zetozen odol tantak erortzen ikusten nituen bitartean. Gehiegi ziren eta ezin genuen ezer egin. Jainkoari hura guztia azkar buka zedin erregutzen nion, dardarka nengoen eta zu minduta egon arren, belarrian xuxurlatzen zenidan ni lasaitu nahian. Dena ondo joango zela esan zenidan, gezurra esan zenuen!

Negar egin nahi ez nuen arren, negarrez ari naiz, ahotsa hitz bakoitzarekin hausten zait eta ezinezkoa zait negar egiteari uztea. Denak berdin daude, arnasa sakon hartzen dut erlaxatu nahian eta bizketan jarraitzen dut:

Amaitu bezain laster, gu han botata utzita, ihes egin zuten. Zutitu eta altxatzen lagundu zenidan.

—Pasa da -esan zenidan.

Odolez beteta zeunden eta, hala ere, irribarrez jarraitzen zenuen, dena ondo zegoelako itxura eman nahian, baina ez zen denbora asko igaro erori zinen arte. Laguntza bila garrasi egin nuen eta anbulantzia deitu nuen etsita, baina ezin izan zuten ezer egin zu salbatzeko. Horrela, nire bizitzako gaurik onena izan behar zuena okerrena bihurtu zen, ete beste behin ere maite nuen norbait hil egin zen ni babestearren. Argia amatatu egin zen eta ezin izan nuen ezer egin berriz pizteko.



Negar-zotinak baino ez dira entzuten nire inguruan. Bularrean presio handia sumatzen dut, hankek dardara egiten didate eta gehiago jasan ezinik nire bizitzako maitasunaren hilobiaren aurrean amiltzen naiz:

—Hil arte elkarrekin egongo ginela zin egin genuen, baina ez zen hain azkar izan behar, arraioa! -hitzek eztarria karrakatzen didate min handia eraginez, minez eta haserrez irteten dira- Ezkondu eta zoriontsu izan behar genuen!

—Ekaitz... -Argiren aitak eskua nire sorbaldan jartzen du- utz ezazu...

—Ez! Ez zuen hiltzea merezi! Nire errua izan zen!

—Ez dakizula bururatu ere zure buruari errua botatzea, ez da zure errua, eraso egin zizueten basati haiek...

—Baina nik zerbait egin nezakeen! Ez nion kolpe guztiak hartzen utzi behar! -negar-zotinka- Zerbait egin izan banu, agian bizirik jarraituko luke.

—Edo biok hilda egongo zinatekete.

—Agian horrela hobeto izango litzateke.

Argiren aitak besarkatu egiten nau eta negar egiten dut, negar egiten dut begiak lehortu eta erre arte, eta garrasi egiten dut, garrasi egiten dut indarririk ez dudana arte. Argiren aita nire ondoan geratzen da une oro. Hala izan ez dadin saiatu naizen arren, oroitzapenek min ematen dute, labankadak bularrean bezala heltzen zaizkit, eta zu ez zaude hor mina kentzeko. Badakit zugatik bizi behar dudala, baina ez dakit nola egin zu gabe. Orain iluntasuna besterik ez da geratzen.

Hainbeste gustatzen zaigun liburua ateratzen dut trajeko jakatik.

—Itxaron, nire ordua iristen denean zurekin elkartuko naiz.

Musu bat ematen diot liburuari, eta zure hilobiaren gainean dauden loreen ondoan uzten dut. Zutitu eta bihotza uzkuertuta urruntzen naiz, jakinik joaten utzi behar zaitudala bakean atseden har dezazun, eta malkoak gorabehera, irribarre batek apaintzen du nire aurpegia, badakidalako berriro ikusiko zaitudala.

Ipuinak



Uhai Martin Mendiguren

Irabazlea 18 urtetik gorakoek sailean



Hogeita hamahiru. Zin-zinez miresten zuten zenbaki hura. Edo, eurek esango zuketzen moduan, *ogoitia amirur*, garai hartan hizkuntza pitin bat ezberdina baitzen. *Veinti trece*, erdal hiztunarentzat.

Herrixka hartan inork ez zuen ezagutzen miresmen horren jatorria, inork ez zuen inoiz galdetu zein ote zen zenbakiaren zerizana, eta, hala ere, bertako bizilagun guztiek itsu-itsuan aitortzen zuten bere jainkotasuna, zalantzarik ñimiñoena sekula egin gabe.

Hogeita hamahiru biztanle zituen urrutiko herrixka xeble hark. Munduan barrena izango dira hogeita hamahiru biztanle dituzten beste herri batzuk, dudarik ez daukat, baina kasualitate hutsak eraginda, ziurrenik. Egunean eguneko zifrak izango dira, gaur hori eta bihar auskalo. Batzuk, zorionezkoenak, hazkundera; beste batzuk, desagertzeko bidean. Istorio honetako herritxoan, ordea, hogeita hamahiru lagun bizi izan ziren betidanik, ez gehiago eta ez gutxiago.

Haurren bat jaiotzeko zenean, erabaki behar izaten zuten zeinek egingo zion lekua jaioberriari, edo, beste hitz batzuetan esanda, nork utziko zion bizitzeari, heldu berriak bizitzeari ekin ziezaion. Are bortitzago esanda, nor

hil erabaki behar zuten umea hogeita hamahirugarrena izan zedin eta ez hogeita hamalagarrena. Oso naturala zen eurentzat eta oso barneratuta zuten horrela izan behar zuela. Ez pentsa arazo handirik zutenik aldamenekoa erailtzeko, ezta norbera eraila izateko ere. Halaxe egin zuten euren gurasoek. Eta halaxe euren gurasoen gurasoek. Beharbada, aurreko belaunaldiek ere bai, baina inork ez zuenez sekula deus ere galdetu, ezin jakin. Halaxe eta kitto!

Ohikoena izaten zen taldeko zaharrena ordezkatzea. Irizpidea ezin gardenagoa zen eta, bizilagunek beharrean, adinak berak egiten zituen herioaren paperak. Hala ere, salbuespen bat edo beste izan zen inoiz. Behin, larriki gaixoturik zegoen gazte bat aukeratu zuten, hura hainbeste sufritzen ikusita, bihozgabea iruditzen zitzaielako halako baldintza jasangaitzetan inor bizirik irauaraztea. Beste batean, umerik izan ezin zuen andre antzuz gabetu ziren, andreak berak, konplexuz gainezka, bere burua eskaini zuelako emankorragoa izango zen beste bati lekua egiteko.

Urriagoa izaten zen alderantzizko gertakaria: ezbehar baten ondorioz norbait zentzen zenean, berehalaxe ekiten zioten herritar berri baten sortzeari. Urduritasun handiz bizi izaten zituzten batzuetan bederlatzi hileko, beste batzuetan gehiagoko itxaronaldiak, hogeita hamabi zenbakiak deserosotasun izugarria eragiten baitzien euren barne-muinik sakonenetan, azaldu ezina zitzaien ondoeza. Esan beharra daukat oso gutxitan jasaten zituztela berezko heriotzak, herrixkako biztanleak nekez heltzen zirelako berrogei urtera. Ez zekiten pertsona bat zahardadeak jota ere hil zitekeela, baina, egia esan, jakinminik ere ez zeukaten. Aldez aurretik esan bezala, oso barneratuta zuten euren bizi-zikloa eta bere horretan onartzen zuten ikasitako bizimodua.

Taldea zaharberritzen zihoan etengabe; batzuk joan, besteak etorri, aldakuntza konstantean bizi ziren. Eraberritze hori, ordea, ez zen edonolakoa. Aurretiaz adostuta, urtean behin-edo jaiotzen ziren umeak, nahiz eta batzuetan, ugalkortasun arazoak medio, jaiotzen arteko tartearak luza zitezkeen. Jakina, sexu-harremanak ondorengotza sortzeko helburu soilez izaten zituzten. Eta ez, ez zieten sexu-harremani uko egiten gustukoak ez zituztelako, ez jauna, baizik eta bazekitelako larrutan nahi beste egiteak populazioaren egonkortasuna arriskuan jarriko zukeela.

Sexu-zaleak bai, baina hogeita hamahiru-zaleagoak.

Urteak joan eta urteak etorri, hogeita hamahiruaren usadioak aurrera egin zuen denbora luzez. Garaiak eta garaiak izan ziren, bakoitzak bere berezitasunekin, noski. Batzuetan gizonezko baino emakumezko gehiago izan ziren, eta besteetan alderantziz. Bereziki kezkarria izan zen 9 emakume besterik ez eta 24 gizon izan zituen urtabe hura. Bederatzi emakume baziren ere, emakume-emakumeak bost bakarrik ziren, bi, sei, bederatzi eta hamar urteko neskatoei ezin dakiekkelako emakume izena eman. Ez behintzat ugalkortasun aferetan. Beldur ikaragarria hartu zioten ernaltzeko ezintasunari, ar-emeen proportzio latz horrek kolokan jartzen zuelako zibilizazioaren biziraupena, eta, horrexegatik, etorri ziren haurdunaldi guztiak grina handiz ospatu zituzten. Zetorrena emakumezkoa izan zedin erregu egin zioten auskalo nongo jainkoari. Jainkoari baino, patuari, halabeharrari, hogeita hamahirua bazelako aski jainkotasun eurentzat, besterik ez zuten behar. Eta errukiorra izan omen zen patua, zeren hurrengo jaioberria neskatila izan zen, eta hurrengo biak ere bai.

Begi onez ikusten zituzten haurdunaldiak, baina ez denek. Gogoan hartu haurdunaldi bakoitzak beste norbaiten azken agurra zekarrela, eta, oso modu bortitzean, bizilagun horri zortzi hilabete eskas geratzen zitzaizkiola berresten zuela. Gaur egungo medikuek ez-dakit-zenbateko bizi itxaropenak zenbatesten dituzte, baina hangoa ezberdina zen. Itxaropenak itxaropen dira, usteak besterik ez. Akaso gehiago, akaso gutxiago, batek daki. Herrixka hartan, ordea, bazegoen jakiterik: zortzi hileko tartea irmoa eta ziurra zen. Haurdunaren tripa handitu ahala, hil hurrenaren bizidenedora murriztuz zihoan. Hori bai hori, ordulari bitxia, herrixka hartan zeukatena!

Eta, bat-batean, inoizko egunik gatzgabe eta arruntenean, zibilizazioa aldatuko zuen "sorgintxo" jaio zen. Herri sineskeriaren arabera, horrela esaten zaie, deabruarekiko hitzarmen baten ondorioz-edo, indar ezkutuen jabe diren pertsoneri. Deabruarekin hitzarmenik egin zuenez ez dakit, baina indar ezkutua nahikoa eta soberan zuen.

Gainerako umeak bezala, koskortzen ari zen neurrian, hogeita hamahiruaren nondik norakoak ulertzen eta barneratzen hasi zen. Onartzen ere bai. Baina bazen besteengandik bereizten zuen zerbait: oso

gaztetatik hasi zen zenbaki ilun eta lizunekin amets egiten. Fantaseatzen. Izugarri erakartzen zuten zenbaki irits ezinek. Hogeita hamalauak. Hogeita hamazazpiak. Berrogeita... Obsesioak jota bizi izan zuen bere nerabearoa, ameskeria horiek gogotik kendu ezinik. Zer gertatuko zatekeen hogeita hamahiru beharlean, gehitxoago balira? Etengo al zen denbora supituan, mundua betiko geldiarazteko? Eroriko al zitzaien zerua euren buruen gainean? Bereganatuko al zuten zigorrik krudelena ekarriko zuen madarikazioa? Ezin zitzakeen irudikatu halako burugabekeria batek eragingo zituzkeen ondorioak. Misterio hutsa zen eta oilo-ipurdia egiten zitzaion.

Eta, halako batez, ustekabeen, herrixka hartan esan ziren hitzik ausartenak bota zituen:

—*Ekusi dagun ogoita amalaur ixanda ze gertako dan. Ez dagun il urrengoa.*

Ez zuten serio hartu —burua galdu du gajoak, ez daki zer esaten duen— eta denek jarraitu zuten euren eginbeharrekin. Lege zaharreko ohiturari aurre egitea gehiegizkoa zen, bada. Egia aitortzera, hilketek ez zioten aparteko arazorik sortzen, bizi-prozesuari bukaera ematen zioten gertakari arruntzat hartzen baitzituen. Maleziarik gabekoak. Erabat dogmatikoak. Jakin-gosea zen bere apetaren iturburu bakarra, besterik ez zegoen. Nazaretoko Jesusekin, hortaz, antz gutxi.

Jabetu zen oso zaila izango zitzaiola bere desiorik handiena gorpuztea, misterio txundigarri horren erantzuna jasotzea, hainbesteko morboa pizten zioten ondorioak antzematea, hogeitahamalautzea. Bere gain hartu beharko zuen hogeita hamahiruaren langa jainkotiar hura gainditzeko lana, beste inoren laguntzarik gabe.

Denborak aurrera egin zuen. Umetxoren bat edo beste jaio zitzaien, beste horrenbeste lagun hil zituzten, eta egunerokotasuneko gorabeherak beti legez jarraitu zuten, harik eta neskatoak, iluntsenti goibel batean, herrixka osoa asaldatu zuen arte. Oihu eta oihu azaldu zen jendartean, ezpainak dardar eta bere onetik guztiz aterata. Estu eta larri esan zien, sei urteko mutiko koskorrekin sagar bila ari zelarrik, eraso egin ziela euren tamaina halako hiru zuen piztia batek. Munstroak haurtxoa bere atzaparretan atzeman eta, amorru biziz, burutik burura txikitu zuela. Bere begiekin ikusi zuela nola



minutu eskas batean (...). Egundoko izugarrikeria.

Horixe izan zen bizilagunei kontatu ziena. Baina hori ez zen izan benetan gertatutakoa. Gertatutakoa zeharo desberdina izan zen. Arratsalde hartan, sei urteko mutikoa hartu eta, sagar bila joango zirelako aitzakiarekin, basoan barrena sartu ziren. Zertarako kate astun hori, bada? *Oraintxek ekusikoúk*, mutilko. Segituan jakin zuen mutikoak zertarako ekarri zuen kate zahar hori, zertarako eta hura bera enbor batera kateatzeko! Hantxe abandonatu zuen haurra, ezkutuko enbor hari lotuta, ihes egin ezinean, beregana inor bueltatuko ote zen ere ez zekiela. Sikiera bahiketaren zergatia jakin izan balu...

Etorri ziren egunetan, ezinegonak hartu zuen herritxoa. Ez bereziki sei urteko mutikoaren galerak sorrarazi zien tristuragatik, ez eta inguruan zebilkien munstroak sorrarazi zien beldurragatik ere. Behar baino gutxiago izateak sorrarazten zien eragozpen gehien. Eta, hogeita hamabi izatearen berezko urduritasunez, ziztu bizian jarri ziren herritar berri baten sortze-lanetan.

Bitartean, sorgintxoa gauero-gauero basoan barruratzen zen, isilpean, atxilotuta zuen mutikoari jaten emateko. Harengana heltzerakoan, negarretan aurkitzen zuen beti: haserre-negarrak izan ziren hasieran, atsekabe-negarrak ondoren, eta, denborarekin, erregu-negar bihurtu ziren. Hirugarren asterako negar egiteari utzi zion. Negar malkoak agortu omen zitzaizkion.

Herrixkan, berriz, emakume bat haurduntzea lortu zuten, eta, espero bezala, herritarrek gogotik laudatu zuten zorionezko emakume hura. Tripa hazi zitzaion eta sorgintxoak pozaren pozez bizi izan zuen gainerako bizilagun guztiek hainbesteko deserosotasunaz bizi izan zuten itxaronaldia. Zer gertatuko ote? Nola erreakzionatuko zuen unibertsoak hogeita hamalagarren biztanlearekin? Hainbeste denbora misterio horren atzetik eta, egun gutxi batzuren buruan, azkenik, bere bizitzaren giltzarri bilakatutako erantzuna estalgabetuko zuen. Irrika gorrian zegoen kosmosa aldatuko zuen eguna noiz etorriko zain.

Tik-tak, tik-tak, hilabete eskas faltan; tik-tak, tik-tak, astebete eskas faltan; tik-tak, tik-tak... eta haur egiteko eguna heldu zen. Haurduna erditzen



hasi eta sorgintxoaz zurrarak jota hiltzear zegoen ia, zentzumen guztiak erne, egoera sasiorgasmikoan, eta, itsumustuan, haurra munduratu egin zen. Ez zen ezer berezirik gertatu. Ezertxo ere ez. Denak jarraitu zuen ordura arte bezala. Desilusio galanta, benetan. Ezin imajinatu zenbaterainokoa!

Desilusio horrekin batera galdu zuen hogeita hamahiruak bere-berekia zuen jainkotasuna. Orduantxe jabetu ziren, sorgintxoaz lehenengo, gainerako guztiak gero, hogeita hamahiruaren iruzurraz. Akabo debozioa. Ez zuten beste inor hutsaren truk sakrifikatu.

Ondoren, beste ume bat jaio zen eta hogeita hamabost izan ziren. Gero beste bat. Eta beste bat geroago. Ehun biztanlera iritsi ziren. Eta, urte batzuen buruan, milara ere bai. Eta, gerora, gaur egun bizi garen zortzi mila milioi biztanlera.

Hizkuntza, baina, zazpichun milari baino ez zaigu ailegatu.

Olerkiak



Oihane Cabezas Guenaga

Irabazlea 11-12 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



IL
-22

Munduko altxor onena

Olatuak mara-mara
zure bihotzetik nirera.
Begiratu aurrera hor dago ortzi-muga,
baina txalupa apurtuta,
nola joango gara?
Zelako tristura.
Konpontzeko modu bakarra zure bihotza da.
Begira, aurrera goaz!
Sendatu duzu.
Zure bihotzari esker.
Txalupaz gain nire tristuraz betetako zuloa ere sendatu duzu,
zure bihotz indartsu eta zintzoarekin.

1, 2, 3, 4... arraunak olatuen kontra kolpeka
aritzean dena txipristintzen dute.
Zure bihotzetik nirera.
Heldu gara ortzi-mugara.
Altxorraren bila hasi naiz
baina konturatu naiz zu zarela altxorra
nire bihotzetik zurera.

Olerkiak



Lore Sanchez Onaindia

Irabazlea 13-14 urte bitartekoen sailean
- Kurutziaga Ikastola -



Lautada honetan,
kanoiak entzuten dira;
BOOM - BOOM!
Lautada honetan
minaren garrasiak entzuten dira;
AAAAHHHH! AAAAHHHH!
Lautada honetan,
lehen zelai berdeak zirenak,
orain likido gorritz estalita daude.
Lautada honetan,
lurrean armak botata ikusten dira.
Lautada honetan,
kea usaintzen da, suarena.
Lautada honetan,
usain fuertea dago, aguantatu ezina.
Lautada honetan, leku guztietan,
umeak eta emakumeak daude negarrez,
elkar lasaitu nahian.
Gizonak, lurrean betiko lo hartuak daude,
edo loaldia saihestu nahian.
Dena ilundu da, baina oraindik,
berdina sentitzen dut.
Ez da ezer ikusten, baina oraindik,
zarata berdinak entzuten ditut.
Ezer ez da lehen bezala;
hau ez da amonaren txokolate epelaren bezalakoa,
ez, hau erretako txokolatea da,
beltz-beltza eta mingotsa.
Zenbat itxaron behar da dena bukatzeko?
Nire buruak ezin du pentsatu,
gorrotoak menperatu du eta.
Nire zentzumenak
dantzan dabilta, urduri.
Bat-batean, zarata bat entzun dut;
BANG !
Eta azkenik dena amaitu da,
loak gainditu nau.

Olerkiak



Daniel Barrutia Narbaiza

Irabazlea 15-16 urte bitartekoen sailean
- San Antonio ikastetxea -



Bagoaz

Bagoaz, ez dakit nora, baina bagoaz.

Ama ikusi dut negar baten aitari musu bat emanaz.

Ez dut ezer ulertzen.

Aitak arropa arraroa du jantzita, berde eta marroi kolorekoa.

Lepoan noizbait ikusi dudan gauza bat du.

Beti esan dit gauza txarrak egiteko baino ez duela balio.

Amak joan egin behar dugula dio, baina aita ez dator gurekin.

Elurra ari du eta hotz handia egiten du.

Horrelako egunetan amak ez dit kalera irteten uzten, baina gaur
bagoaz.

Zarata ikaragarria entzun dut kanpoan, eta amaren begietan beldurra
baino ez dut ikusten.

Aitak ihes egiteko esan digu oihu eginez.

Lepoan motxila txiki bat daukadala, kalera noa amarekin.

Albo batera begiratu eta eraikin bat guztiz suntsituta ikusi dut.

Haren suaren beroa hemendik senti dezaket.

Gurekin batera jende asko dator, inork ez du alaitasunik aurpegian.

Nekatuta nagoela diotzat amari, berak ni besoetan hartu eta aurrera
jarraitzen dugu.

Urrunera kotxe ilara luze-luzeak daude.

Bertara heldu garenean amak paper batzuk erakutsi eta aurrera egiteko
esan digu gizon batek.

Tren baten sartu gara, gainezka dago.

Amak jesarleku bat aurkitu, ni altzoan hartu eta eseri egin gara.

Negarrez dago.

Amak gertatzen ari dena azaltzen saiatu da, baina ez dut ulertzen.

Zergatik ari gara ihes egiten?

Zergatik aita ez dator gurekin?

Zergatik daude denak triste?

Itzuliko ote gara inoiz?

Amak aitona-amonekin goazela dio, hemendik urruti daudelako.

Leihotik begiratu eta infernua baino ez dut ikusten.

Aitaren moduan jantzitako gizon asko ikusten ditut arineketan.

Nora ote doaz?

Trena martxan jarri da.

Nik ez dut nahi, dirudienez inork ez du nahi...

Baina bagoaz.

Olerkiak



Garazi Otañuy Garitaonandia

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean
- Fray Juan de Zumarraga institutua -



Hitz huts

Ez dira nire hitzak
ez
nireak ez dira,
akaso jaberik al dute?
Ezin daitezke menderatu
gu menderatzen gaituzte.

Hitzak libreak dira,
hegan eginen dute
baina lantzean behin
begirada bat piztean,
ezpainak banantzean,
ideiez betetzen ditugu.

Ideiak gatibu daude berbetan
askatasuna
askatasuna ez dute besterik desio
eta zure ahotik
nire belarrira salto egitean
hitz hegalariek

hitz bihurriek
zeintzuk ideiak kustodiatzen dituzten,
lantzean behin
oharkabea
nire erraierara heltzen dira
eta hor bai,
askatasuna lortuko dute behingoz.

Hitzak, ordea,
hustu egingo dira
autobus bakartien tankera
berriz betetzeko zain.

Egidazu berba, maitea
mintza zitez nirekin
Sar dadila zure bururapen jariora nirean
eta aska ditzagun batera
solta ditzagun kateak!

Oihukatu
eta ahoa tapatzen badizute
begiratu
Zeren zure begirada
mirari bat da
mirari bat zara.

Olerkiak



Ainhoa Urrien Teltetxe

Irabazlea 18 urtetik gorakoan sailean



FL
-22

Aurpegiak

Nagikeriaz esnatu dela dirudi.
Gaur ere ez du barruko aurpegia urez ernatuko
bere buruaren beldur baita.
Bi aurpegidunak omen denok,
elkarrengandik ez oso urrun dauden bi mundu
bi aurpegitan islatuta.
Bata bistaratzen duguna
bestea geure barrunbeko zulokoa,
ikustea eta begiratzea
kostatzen dena.
Aitzakiarik koldarrena
errua destinoari egozte da;
ez du onartu nahi
baina barruak sentiaraziko diona
sentitzearen beldur da.
Egunsentiari hordago
biluzik hartuko du tea,
izara artean,
kikararik galaienean.

Biluztasuna berarentzat bakarrik nahi duenez
alkandora nasaia jantzi du
leihotik zelatan egon daitekeen inork
siluetari antzeman ez diezaion.
Hala moduz lotu ditu botoiak
eta kuleroak tapatzeko lain ez den tela zatia
titien azpitik besoekin inguratu du,
ukituak laztan egin diezaien.
Zigarroa piztu eta
kristala lausotu asmoz
leihora bota du kea
barruko aurpegiaren erreflexurik ez ikusteko.
Tea hartzeko kikara darabil hautsontzizat.
Zigarroa ketan difuminatuz doa
bizitza bera bezala.

Bere buruari kapritxoa onartuz
arropa aldatu du.
Ortozik doa sukaldera.
Pasilloko alfonbren goxotasunetik ihesi
jauzi bat egin du ezkaratzera
eta baldosa hotza gustura zapaldu du.
Plazer txikienek
egiten omen dute handien bizitza.

Beste behin etxea oskol bihurtuko du
eta egun osoa pasako du
harresien epelean gotortuta.
Bainera urez betetzen den bitartean



arropak erortzen utziz biluztu da.
Behatz puntak izan du
lehenengo kontaktua urarekin.
Pixkanaka hondoratu da
uraren mugak kokotsa gainditu arte.
Bakardadean
bakardadeaz pentsatu du.
Hatsa galtzeko beldurrez
bortizki atera du gorputz erdia uretatik,
ingurua zipriztinduz,
eta konturatu da
heriotzak baino
ez bizitzeak gehiago ikaratzen duela.

Kalera irten da.
Paradisurako txartelak saltzen dituela
oihukatzen du agure batek.
Non dago ba paradisia
Norberarengan ez badago?

Bertsoak



Gorka Fonca Barbarias

Irabazlea 11-12 urtekoen bitartean
- San Antonio ikastetxea -



Irabazi arte

Athletic zalea naiz
txiki txikitatik
eskolan ta kalean
Aupa! betidanik
irabazi edo galdu
beti nago pozik
lehoiak deika daude
beren harmailetatik

Zuri ta gorritz goaz
dotore jantzita
ondo jan eta edanda
hau bai plan polita
partida gureztat
dago irabazita
hoberena da jaiia
zelaia ikusita

Jokalari guztiak
urduritu dira
baloi guztiak doaz
oso urrutira
jende guztia dago
zerura begira
hurrengoan hobeto
bagoaz mendira

Bertsoak



Uñax Arcadio Cearreta

Akzesita 11-12 urte bitartekoen sailan
- Zabalarra eskola -



Zazpi antxumeak

Bazen behin etxe baten
zazpi antxumetxo,
bakar-bakarrik zeuden
itxoiten amatxo.

Bat-batean norbaitek
jo zuen atea,
denek ikusi zuten
otsoan hankea.

Antxumez mozorrotu
zen otso zaharra,
baina horretarako
irina beharra.

Bigarren saiakeran
sartu zen poz-pozik,
ta denak jan zituen
txikia izan ezik.

Umea beldurturik
amagana joan zen,
dena azaldu zion
ondo ahoskatzen.

Tripa zabaldu zion
amatxok irrikan,
ta otsoa utzi zuten
itotzen errekan.

Bertsoak



*Idoia Palacios Izurista
Ixone Asategi Narbaiza
Alba Gomez Arca*

Irabazlea 17-18 urte bitartekoen sailean
- Jesuitak Ikastetxea -



IL 22

gazte mozkor batten komeriak

Alkohola lagun izaten dugu
larunbateko gauetan
trago ta trago astero gaude
barrezka edo hizketan.
Poztasuna ta festa giroa
guztion aurpegietan
eta naiz ondo pasatzen dugun
pizgarrien tartetan
alkohola gero ez da hain ona
etxera joateko bueltan.

Nonok ikusi egingo banu
a zer nolako eredu
nire kalea ordu hauetan
labirinto ematen du.
Gaua denean tenperatura
da Siberiako negu.
Grabitatea neure oztopo
paretak nire sostengu
etxera bueltan bidetik noa
ezin zutunik mantendu

Nire eskailerak igotzen ditut
mozkorren modu eroan
Baina horrela ezin dut jakin
nagon goi edo behekoan
Gaur egongelan argia dago
ez nau sorte onekoan.
Orduan amak bere semea
mozkor ikusitakoan
zaplaztekoa nire buruan
atetik sartzerakoan

Horren gaztea ta horren mozkor
ez al daukazu lotsarik
harrapatuta zaude gaurkoan
orain ez dago aitzakiarik.
Ze ganora da etxera halan
itzultzea mozkorturik.
Alkohola zure adinerako
oso txarra da oraindik
utziko zaitu erritmo honetan
bat ere ez neurona barik

Ama lasaitu hau ez da eta
horren besterako gauza
ezta inondik inora ere
arazo larrien kausa
mundu guztiak kontsumitzen du
ez bakarrik alkohol hutsa
drogadikzio tradizioa
mundu guztian da luza
Laboak ere probatu zuen
noiz baiten izarren hautsa

Etorkizuna airean duzu
baina edaten hondatu
bide okertu tamalgarria
egin duzunez hautatu.
Ama aitortu egiten dizut
egin dudala pekatu
ez da berriro gertatuko
beraz mesedez parkatu
baina datorren astean ere
berriro errepikatu

Bertsoak



Iruri Altzerreka Martinez

Irabazlea 18 urtetik gorakoen sailean



Azabeko elkarriketak

1

Alarma entzun, eta gainetik
kendu orduko izara,
astiro-astiro itzultzen gara
haragizko bizitzara.
Hasperen eta arrausi artean,
zer dator begi bistara?
egitekoen ilara,
(er)rutinaren matxinada.
Norabidea aspaldi galdu,
duten ardien gisara,
eguneroko zurrumbiloan,
murgilduta bizi gara (bis).

2

Ia inertziaz hartu ohi dugu
kalera daraman senda,
ezagun diren aurpegiekin,
topo eginez behin irtenda.
Soilik horrela sinkronizatzen
da kaletarren agenda,
plaza, parke eta denda,
txoko ezkutuen zerrenda.
Erori ahala hura estaltzen
duen porlanezko benda,
bere estolda, zuloetatik,
kalea hizketan hasten da (bis).

3

Autobuserantz joaten dira,
presaka, modu arinean,
begizuloak bi aldeetan,
motxila bana soinean.
Erromerian, kaleetan nork
ez ditu ikusi, finean?
Nerabeak ezinean,
gorantz doaz adinean...
Barrez hizketan asteburuko
plana pentsatu heinean,
patu hurbilari nekez zentzua
emateko ahaleginean (bis).

4

Argiarekin esnatzen doaz,
inguru zein kale arte,
haurren algarak bihurtzen dira,
gure paisaiaren parte.
Haiei lotuta, aita edo amaren
espiritua dakarte,
astelehen zein astearte,
barikua heldu bitarte.
Eskua askatu, elkar agurtu,
eta badoaz aparte,
arratsaldean haien bideek
berriz topo egin arte (bis).

5

Orgaz estaltzen dira kaleak,
telazko motxilen truke,
bete ahala zerrendak hustuz,
olio, fruta, azukre...
Negoziatzeko, ta hizketarako
ai andrek zenbat bertute!
Berezko ez al dituzte?
kontrakorik hobe ez uste...
Pausurik pausu ibilbidean,
goizeko zerua arkupe
herria eta lanegun hitsa
koloreztatu ohi dute (bis).

6

Eguerdirako joan-etorriak
arindu ohi dira baina,
harmonia horrek gutxi irauten du,
hala ere ezin engaina.
Entzun orduko txirrinen hotsa,
gerturatuz atezaina,
berera dator oraina,
eskola orduen ordaina.
Guraso eta oihu artean,
ze nahasketa bikaina,
haizeak dakar txokolate
ta mortadelaren usaina (bis).

7

Jubilatuak bidegorritik,
mantso-mantso jira-bira,
ta gurasoak banku hurbiletik,
haien umeei begira.
Eskola osteko jardueretan
dabiltza gazteak, tira.
Arratsaldearen distira,
apurka doa erdira.
Erlojuaren tik-takarekin,
denbora puzten ari da,
farolak pizten diren neurrian,
kaleak itzaltzen dira (bis).

8

Iluntzerako hustu ohi dira
paisaia eta erliebe,
zeru ilunak isiltasuna
bereganatzea xede.
Azken arimak kanpai hotsekin
etxeratzen dira trebe,
neke kronikoa bere,
hori baita bizi lege.
Bihar goizean bihurtu arte
berriz sokadun titere,
herriak gauez arnasa hartzen du,
une batez bada ere (bis).